



FUNTSEZKO ELKARTEAK

GAIU proiektu berritzaile eta kontzientziatzailean; aliantzak burutzearen helburu nagusia baliabideak eskuratzea dela esan dezakegu.

Hasteko; lotuko dugun aliantza nagusia “**Ecopinttors**” enpresarekin izango da. Izan ere; gure **ideologia berdinarekin** lan egiten dute margo eta diseinurako produktu ekologiko eta naturalak salduz. Enpresa honetatik lortuko ditugu kolore desberdinetako margoak, egurra lixatzeko takoak, tamaina desberdinetako brotxak, eskularruak, pintura garbitzeko produktuak, etab.

Produktu guzti hauek enpresa honen bitartez eskuratzea erabaki dugu, familia txiki bat izatearen helburuarekin, ez dugulako enpresa askorekin aliantzatu nahi. Honez gain; “Ecopinttors” enpresak, klima aldaketaren eta kontaminazioaren kontra lan egiten du, eta hori da gure enpresaren filosofiaren oinarrietako bat. Aldi berean; kopuru handian erosiz gero, beherapenak lortzeko aukera eskaintzen dute.

Bestalde; diseinu pertsonalizatuak egiteko telak lortzeko, **herriko eta inguruko**



herrietako dendetan soberan geratzen diren tela zatiak **birziklatuko** ditugu printzipioz. Hala ere; “**NASTASIA**” izeneko enpresarekin ere harremana dugu, material desberdinetako tela organikoak lantzeko. Kasu bietan; ingurumenari ahalik eta min gutxien egitea da gure nahia.

Honez gain; jakina den bezala, egurra izango da gure produktuen oinarritzko materiala. Hau lortzeko; ez dugu aliantzarik beharko, bazkide baten baseritik lortuko baitugu. Gainera; lastoa edo egurrarekin eginiko produktu guztiak ere leku beretik aterako dugu.

Hari beretik; kutxilak lortzeko, “**CUCSA**” enpresarekin harremanetan egongo gara. Izan ere; Mexikon jatorria duen enpresa den arren, nazioartean kalitate-prezio aukera hobereana dela iruditu zaigu.

Silikona lortzeko unean; Zumaiako “**SILAM**” enpresari esker eskuratuko dugu. Kalitate oneko produktua egiten dutela iruditu zaigulako, eta gure nahietako bat delako bertoko produktu pertsonalizatu eta enpresak ere bultzatzea eta ezagutaraztea.



Bukatzeko; artilea lortzeko, enpresako bazkide baten ama jostuna izanik, bere laneko soberakinak erabiliko ditugu. Horrela; gastuak murriztu eta materiala birziklatuko dugu.

Orokorrean; kalitate eta prezio oneko aliantzak egitea dugu helburu, material natural eta ekologikoarekin eginak eta ahal den neurrian gertukoak.